

BAT-BATEKO BERTSOAK IDATZIZ EMATEKO IRIZPIDEAK
2024-09-05

IKERKUNTZA TALDEA
BERTSOZALE ELKARTEA

AURKIBIDEA

AITZINSOLASA	4
A. TESTUARI DAGOZKION IRIZPIDEAK	5
1. GAI-EMAILEAREN HITZAK	5
2. BAT-BATEKO BERTSOAK	5
2.1. Hiztegia	
2.2. Deklinabidea	
2.3. Aditza	
2.4. Bokal elkarketak	
2.5. Bokal arteko kontsonante galerak	
2.6. Nafarroako euskalkitzat	
2.7. Txokokeriak	
3. AHOZKOARI ALDAKETAK EGIN BEHARREKO ZENBAIT KASU	6
3.1. EZ partikula	
3.2. -Z GERO partikula	
3.3. BAIT- partikula	
3.4. Aditzetan; bi bokal berdin ondoan	
3.5. Aspirazioa	
3.6. [i + kontsonante] inguramenduko bustidura	
3.7. Nahasketak	
4. IDAZKETA ZEINUAUAK	7
4.1. Lerro amaieran koma edo puntu eta koma	
4.2. Puntuaren barruan koma edo puntu eta koma	
4.3. Puntua	
4.4. Harridura eta galdera ikurrak	
4.5. Aipuak.	
4.6. Bi puntuak	
4.7. Apostrofeak:	
4.7.1. ERE	
4.7.2. Aditz elkarketak	
4.7.3. Hainbat kasu	
4.7.4. Aferesiak	
4.7.5. Laburdurak	
4.8. (bis)	
4.9. Puntu bat errepika segidan izan gabe	

5.	LETRA ETZANA ALA BOROBILA	11
5.1.	Jaialdien leloak	
5.2.	Erdaraz eta estilo zuzenean egindako aipuak	
5.3.	Ekimenen izenak	
6.	MAILEGU ETA MAILEGUONDOAK	12
6.1.	Ingelerazko eta latinezko hitzak	
6.2.	Frantsesezko eta gaztelaniazko hitzak	
7.	BERTSO LERROAK BANATZEKO BI TRADIZIO	12
8.	PUNTUA EMANDAKO ARIKETA	13
9.	AUTORETZA	14
	B. KOKAPEN IRIZPIDEAK.....	14
1.	LEKUA	14
1.1.	Herria	
1.2.	Auzoa	
1.3.	Lapurdi, Baxenabarre edo Nafarroa Beherea eta Zuberoa	
2.	DATA	14
3.	BERTSOLARIEN IZEN-DEITURAK	15
4.	AURKEZLEA, GAI-EMAILEA ETA GAI-JARTZAILEA	15
5.	GAIA	16
6.	NEURRIA	16
7.	DOINUA	16
8.	BERTSO ESKOLA LARRIZ ALA XEHEZ	16
9.	KOKAPEN IRIZPIDEAK APLIKATUTAKO ADIBIDEA	16
	C. BERTSOGINTZAKO ARIKETA IZENAK	18

AITZINSOLASA

Bertsozale Elkartek 1991n eman zituen argitara “Bapateko bertsoen transkribapenerako erizpideak” lana. 2003an, berriz, lan eder haren eguneratze handia egin zuen Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza Batzordeak. Eta orain, 2022an, ibiliak eragin dituen galdera berriei edo lehengoei xehetasun handiagoz erantzuteko, 2003ko txostena aztertu eta ekarpen berriak egin ditugu Ikerkuntza Batzordean. Esan gabe doa, ez da izan orain arteko irizpideak txarrak edo desegokiak zirelako. Irizpide horiek laguntza ederra izan dira azken urteotan bapateko bertsoak idatziz ematen aritu direnentzat, baina aitzina joan arau ikusi da zenbait alderdi doitu beharra zegoela, beste zenbait osatu egin behar zirela, eta, beste batzuetan, ikuspegia moldatzea komeni zela, jokabideak argitze aldera.

Sortzez da kontraesankorra ahoz kantatua idatziz ematea. Beharrezko lana da, hala ere. Irizpide hauek emateko orduan, kantatua ahalik eta ongien gordez, irakurlearentzat lana zailegi gerta ez dadin saiatu gara. Bertsolariak kantatu duen hartara ahalik eta gehien hurbiltzea izan da helburua.

Bertsoak bere-bereak dituen ahozko hizkeraren ezaugarriak gordetzea garrantzitsua iruditu zaigu, eta hala, lehen atalean, bertsolariak kantatu bezala idatziko direnak azaldu ditugu. Bigarren atalean, berriz, dela hizkuntza arauak beraiek ahozkoa lehenesten dutelako, dela irakurketa errazten dutelako, aldaketak egin beharreko zenbait kasu aztertu ditugu.

Hemen eman ditugun irizpide hauek bertsoak argitaratzeko eta artxibatzeko daude pentsatuta. Horregatik, testuari bete-betean dagozkion irizpideez gain, bertso saioak eta bertsoaldiak nola kokatu behar diren ere zehaztu beharra ikusi dugu.

Gisa guziz, beti fintzen joan beharreko alorra da irizpideena. Ahaleginak eginda ere, irizpide hauek ez dute egia osorik. Aurrera begira moldaketak etor daitezke, eta etorriko dira. Gure asmoa ez baita atea erabat ixtea, etapa berri bat irekitzea baizik.

Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza taldea

A. TESTUARI DAGOZKION IRIZPIDEAK

1. **GAI-EMAILEAREN HITZAK** euskara batuan idatziko dira, non eta euskalki edo azpieuskalki ñabardura horiek ez diren bertso-gai bihurtzen.

2. **BAT-BATEKO BERTSOAK**, ahoz sortua baita –eta inprobisatua, gainera–, ezinbestean, ahozko hizkeraren ezaugarriak erakusten ditu. Ahal den neurrian, horiek gordetzen saiatuko gara. Horregatik, **bertsolariak kantatu bezala** emango dira:

2.1. **Hiztegia**: “parkatu” kantatuz gero “parkatu” idatziko da, eta ez “barkatu”; hots, ahoskatu bezala, letra borobilez eta komatxorik gabe. Gisa bera “apez” esanez gero, “apez” idatziko da, eta ez “apaiz”.

Gauza bera, hitz beraren aldaera fonetiko bat baino gehiago agertzen bada bertso edo bertsoaldi batean. Adibidez, batean “sekula” eta hurrengoan “sekulan”; batean “zena” eta hurrengoan “zana”; batean “alperra” eta hurrengoan “alferkeria”... Aldi bakoitzean, **bertsolariak esan bezala** aldatuko da paperera. Gisa bera, bertsolariak esan bezala idatziko dira beste adibide hauek ere: behinepin, alperrik, alperra, ifarralde, parre, irripar, pakea, bekatu, bapatean...

2.2. **Deklinabidea**: Bertsolariak “lagunagaz”, “lagunarekila” edo “lagunarekin” esan badu, kantatu bezala aldatuko da; letra borobilez eta komatxorik gabe. Eta berdin deklinabideko gainerako kasuetan ere: nondik/nondikan/nondio edo norentzat/norendako eta abar.

2.3. **Aditza**: “Zerate”, “gira”, “dautsut”, “niz” edo “zagozie” kantatuz gero, bere horretan emango dira; letra borobilez eta komatxorik gabe.

2.4. **Bokal elkarketak**. Euskalki eta azpieuskalkiek kasuistika zabala erakusten dute, eta guztiak, esan bezala idatziko dira. Honela:

- [e + bok]. Beste bokal baten aurrean e > i bilakatzen da hizkera askotan: “Etxia”, “atia”, “semiengatik” edo “gaztiok” idatziko da.
- [o + bok]. Beste horrenbeste bokal aurreko o > u bihurtzen denean: “Gogua”, “juan” edo “gaiztuekin”.
- [i + bok]. I-ri bokal bat jarraikitzen zaiolarik [j], [š] nahiz [ž] tartekatzen da zenbaitetan. “Biyek”, “egixa” edo “serijjo” idatziko da.
- [u + bok]. U-ri beste bokal bat jarraikitzen zaionean, zenbaitetan –b– tartekatzen da (buruba), beste zenbaitetan u > i bilakatzen da: “eskiekin”, “akitia”. Esan bezala idatziko dira.
- [u/i + a]. Aurreko silabako bokala u edo i izanik, a > e bihurtzen da zenbait hizkeretan: “egie”, “apur bet”.
- [a + a > ea/aia]. Bertsolariak esan bezala idatziko da: “elizea”.

2.5. **Bokal arteko kontsonante galerak**: bertsolariak kantatu bezala idatziko dira honelakoak: “konponbideai” (<konponbideari), “mendian” (<mendiaren), “in” edo “ein” (<egin), “errain” (<erranen)...

2.6. Nafarroako euskalkitzat jotzen direnetan, singularreko bigarren pertsonan, “yaiz”, “yuke”, “yitzan” esaten dute, eta halaxe idatziko da.

2.7. Txokokeriak edo Euskal Herria osotasunean hartuta **ulermenerako eragozpen** izan daitezkeen formak oin-oharretan argituko dira.

3. AHOZKOARI ALDAKETAK EGIN BEHARREKO ZENBAIT KASU:

3.1. EZ partikula. Aditzaren aurreko ez partikulak, aldaketa fonetiko ugari sortzen du: ez zara = etzara; ez dut = eztut; ez da = ezta; ez zen=etzen; ez neki(e)n = enekin. Adibide hauek guztiak, ahozko hizkeran aldaketa fonetiko horiekin ahoskatu behar dira, eta idazterakoan bereizita eman. Horregatik, oin izan nahiz ez, bereizita idatziko dira, eta **irakurlearen esku geratuko da dagokien bezala irakurtzea**. “Ettugu”, eta antzeko kasuetan, bere horretan transkribatuko dugu (letra borobilean eta komatxorik gabe) eta oin-oharretan “ez ditugu” dela adieraziko dugu.

3.2. -Z GERO partikularen kasuan, ohikoa da [aditza+ezkero] formulara jotzea. Neurrian aldaketarik eragiten ez den heinean, behar den bezala idatziko dira. Honela, bertsolariak “joan ezker” esaten badu, “joanez gero” idatziko da; edo “egin ezker” esan badu, “eginez gero”. Badira, ordea, zuzenduz gero neurrian aldaketak izango lituzketen kasuak. Horiek, aldaketarik egin gabe idatziko dira. Beraz, bertsolariak esan bezala idatziko da “etorri ezker”; “etorri ezker” esan eta “etorri gero” idatziko balitz, silaba bateko aldea egongo bailitzateke.

3.3. BAIT- partikulak, aditzari erantsita joan behar du, eta aldaketa fonetikoak, ahoz nahiz idatziz, markatu egin behar dira. Honenbestez, oin izan nahiz ez, “baita”, “baitugu”, “baikara” edo “baitziren” idatziko da.

3.4. Aditzetan, bi bokal berdin ondoan doazenean, aukera izaten da silaba bakar batean ebaki ala bitan egin. Osorik idatziko da hitza: “nukeen”, eta ez “nuken”. Irakurleari dagokio bertsolariak nola esan duen interpretatzea, neurriak lagunduko baitio horretan.

3.5. Aspirazioarekin, Euskaltzaindiak euskara baturako emaniko arauak beteko dira, kasu guztietan. Bokal artean edo diptongo haustaile modura erabiltzen diren h-ekin sor litezkeen neurri gorabeherak, irakurleari dagozkio interpretatzea. Esaterako, “zahar” hitzak bi silaba izango ditu “etxe zahar hau ikusi eta” esaten badu bertsolariak, eta silaba bakarra, “amona zahar hau ikusi eta” esan badu.

3.6. [i + kontsonante] inguramenduan, euskalki askotan **bustidura** gertatzen da. Horietan, Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituen formak erabiliko dira. Hala, “egiña” esan bada “egina” idatziko da; “miña”, “mina”; “habill”, “habil”; “mutilla”, “mutila”; eta “attatu”, “aitatu”.

Gauza bera **eremu murriztekoak** diren beste zenbait **bustidurekin** ere: “lauña”, “killo”, “zaindu” bezalako hitzak, “launa”, “kilo” edo “zaindu” idatziko dira.

Besterik da, **adierazkortasunaren** amorez egiten den **bustidura**. Adierazkor izan daitekeen bustidura oro, bertsolariak esan bezala aldatuko da: gixon, nexka, moñoña, muxu, xixtrin, kuttuna...

Bustidurekin amaitzeko, badira sortzez adierazkorrak ziren eta egun forma neutroan koka ditzakegun zenbait hitz: muxu, xamarra, ixilik, kitto... Horiek, bertsolariak ahoskatu bezala emango ditugu: bertsolariak “muxu” esan badu, “muxu” idatziko da, eta “musu” ahoskatu badu, “musu”.

3.7. Nahasketak: bertsolariak hitzen bat gaizki ebakitzen badu edo gaizki ahoskatzen badu, zuzendu egingo da. Adibidez, “langa” esan beharrean, “landa” esaten badu, edo “sua” esan beharrean “zua” esaten badu, bertsolariak oker esana zuzen jartzea da egokiena. Zenbait adibidek ez dute uzten dudarako tarterik; beste zenbaitetan, interpretatu egin beharko da, eta horretarako, bertsolariarekin berarekin hitz egitea da egokiena.

Bertsolariak lapsusen bat izaten badu, ordea, argibideak oin-oharrean emango dira. Esaterako:

Ez det damurik gazte denboran
pauso gozoak emana
horixe baita mundu honetan
oso berezko dan lana
hortikan datoz haurtxo gozoak
hortik aita eta asma
bikote batek ezin lezake
bide hoberikan asma
baina galdua daukat oraingoz
ordun egin nuen plana
gauz bat badaukat oraindik ere
sekulan ahazten ez dana
haritz zahar honen azpian gozo
nik hartu nuen laztana.

Lehen oinaren kasuan, bertsolariak “asma” esan zuen, baina argi dago “ama” esan nahi zuela. Beraz, “asma” idatziko da, baina oin-oharraren bidez azalduko da lapsus linguæa.

4. IDAZKETA ZEINUAK: irakurlearentzat lagungarri eta ondo ulertzeko ezinbesteko direnean baizik ez dira erabiliko idazkera zeinuak. Helburua bikoitza da: zeinu-ekonomia batetik, eta gehiegizko interpretazio subjektiboak saihestea bestetik. Bigarren honi dagokionez, transkribatzailearen esku geratzen da, ezinbestean, bertsoen interpretazioa. Transkribatzailea irakurleari laguntzen saiatuko da, beharrezko denean eta zeinuak garbi daudenean. Baina interpretazio lan horretan irakurleak ere zuzeneko parte-hartzea izango du. Horregatik, behar beharrezkoak eta nabarmenak diren zeinuak bakarrik jarriko dira.

- 4.1.** Lerro hautsia esaldiak banatzeko modu bat gehiago denez idatzian, ez da beharrezkoa **lerroaren amaieran koma** edo **puntu eta koma** jartzea. Adibidez:

Bastoiarekin ere ez da hain
segurua karnabala
lehengo urtean ere izan zen
nahikoa giro petralla
kalera irten ta gogoan dut
dena plastikoa zala
laban eginda erori nintzen
mezetara nindoala.

- 4.2. Puntuaren barruan** ez da **komarik** edo **puntu eta komarik** erabiliko, non eta esanahia argitzeko ezinbestekoa ez den. Adibidez:

Hori zerri galanta
ez dabil brometan!
Hori putasemea!
Ta diot benetan.
Ta, Maialen, horrekin
ez jarri penetan
konfesatuko bainaiz
biharko mezetan.

- 4.3. Puntua.** Behar denean, beti jarriko da puntua. Adibidez:

Egun ta gauetz kalabojoan
gure barruak ozpintzen
egondu gera. Hola errexa da
lur pareraino berdintzen.
“Irtengo zera” pentsatzen nuen
zerbait sinistu premi zen
baina halere ziur ez nekin
zutik irtengo al nintzen.

- 4.4. Harridura eta galdera ikurrak** beti jarriko dira. Elkarren segidan bi galdera edo harridurazko bi esaldi baldin badatoz, biei jarriko zaie ikurra, eta maiuskulaz idatziko da hurrengo hitzaren lehen letra. Adibidez:

Holako eztabaidari
zertarako ekin?
Zergatik katiatu
metal kontuekin?
Hainbeste burni zati
dezunez zurekin
sartuko zera baina
ekipaiarekin.

4.5. Aipuak. Esaldi kate baten barruan bertso zati bat txertatzen denean, **komatxoak** erabiliko ditugu, eta lerroak bereizteko, honako ikur hau erabiliko dugu, alde banatan tartea utzita: /.

Bertso osoa zitaten ez denean, kendutako testuaren tokian honako ikur hau jarriko da: (...). Baita bertsoa esaldi katean txertatzen denean ere. Adibidez:

Umea zuri zenbat goraintzi
oroimenak du mila garrantzi
(...)

(...)
Bere argazki bat badago gelan
sekula ez dizut utzi
ta ze marrazki egin diozun
zoaz eta erakutsi.

(...)
zuri barrutik atera zaizu
zenbat maitasun ta antsi!
(...)

“Eta Irazuk 2001eko Txapelketa Nagusiako finalean kantatu zuen pasarte hau: “(...) Aita gabe ezin etsi / ta marraztera iritsi / (...) bere argazki bat badago gelan / sekula ez dizut utzi / ta ze marrazki egin diozun / zoaz eta erakutsi”. Zeresan ugari sortu zuen bertsoaldi honek”.

Komatxoekin emaniko bertso zatiak estilo zuzenean eginiko aipuren bat baldin badu, atal hori komatxo sinpleekin (") idatziko dugu. Adibidez: “Txirritarena da beste adibide hau ere: “Leihotikan ujuka / ama ta bi atso / ‘Ez dek harrapatuko / uste bezin mantso!’(...)”.

Bertsoak edo bertso zatiak esaldi katetik kanpo doazenean, ez da inolako komatxorik erabiliko horiek emateko. Adibide horietan ere estilo zuzeneko aipurik baldin bada, komatxoekin idatziko dira.

Puntuazio ikurrak: puntuak (.), kakotxak (,), puntu eta kakotxak (;), bi puntuak (:), eta galdera (?) eta harridura ikurrak (!)?, komatxoen aurretik edo ondotik jar daitezke, aldian-aldian zeri dagokion: edo koma arteko zatiari, edo koma artekoaz gaindikoari.

4.6. Bi puntuak erabili egingo dira, eta hurrengo hitza letra xehez idatziko da:

(...)
Gauza bat garbi esan nahi diot
pertsonek degun orori:
bizitza denok merezi degu
gauza jakina da hori.

Bertsoaren barneko aipuak kakotx artean sartuko dira, bi puntuen beharrik gabe, baina aipuaren lehen letra maiuskulaz idatziko da. Adibidez:

(...)
Esan zidan “Mesedez
etor zaitez hona”
(...)

(...)
Leihotikan ujuka
ama ta bi atso
“Ez dek harrapatuko
uste bezin mantso!”

4.7. Apostrofeak: (') apostrofeak, elipsiaren adierazletzat onarturik, erabilera zehatz hauek izan ditzake:

- **ERE** hitzarekin egin ohi diren kontrakzioen adierazle: lo´re (lo ere), hi´re (hi ere), bat´e (bakar bat ere), gaur´e (gaur ere)... Bertsolariak kontrakzioa eginda kantatu badu, apostrofearekin transkribatuko da. Besterik da bertsolariak “bate” badio batere-n zentzuan (inondik ere edo inongo-ren zentzuan); kasu horretan bate idatziko da.
- **Zenbait aditz elkarketaren adierazpide** ere apostrofea erabiliko da: “pentsatzeu” kantatu duenari, pentsatze´u transkribatuko zaio; “ateratzeizkio” esan duenari, ateratze´izkio, edo “ekartzazu” kantatu duenari, ekar´zazu.
- Ondoko kasu hauek, berriz, **lotuta idatziko dira**: begiraiogun (begira diezaio), emadazu (eman iezadazu), esazu (esan ezazu)...
- **Aferesiak** ere apostrofearekin transkribatuko dira: ´torri, ´karri, ´makume...
- **Laburdurak** ere apostrofearekin transkribatuko dira: gerra´ (gerrara), ganbara´ (ganbarara)...

4.8. (bis). Bertsolariak errepika egiten duenean (bis) ikurra jarriko da errepikatzen duen lerro edo puntuaren ondoan. Adibidez:

Doinua: *Uso xuria errazu I*

Galdera egin dezuz zinez
ta ni erantzun ezinez. (bis)
Bakarrik zaude laguntza eske
bakardaderik haundinez.
Laguna edo ni behar nauzun
argitu zazu gutxinez. (bis)

4.9. Puntu errepika segidan ez delarik:

Arestian adierazi bezala, puntu bat segidan errepikatzen delarik (bis) adierazlea idatziko dugu. Zenbait airetan, ordea, puntua ez da segidan errepikatzen; puntu jakin hori kantatu ondoren, beste puntu bat (edo gehiago) kantatu ohi da, eta ondotik errepikatzen da aurrez kantatutako puntu hori bera osorik. Horrelakoetan, errepikatu den puntua (edo puntuak) parentesi artean idatziko dugu, eta irakurleari oin-ohar batez jakinaraziko diogu puntua nahitara errepikatu duela bertsolariak. Adibidez:

A. Azpiroz

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Zibilak esan naute*

Kaixo bertsozalea
ez zera hutsala!
Izerdiak norberak
sikatu ditzala
udazkenean udako
giroz gabiltzala
gasaren prezioan
jarri da itzala!
(Udazkenean udako
giroz gabiltzala)¹
hego haizeak denok
txoratu gaitzala!

5. LETRA ETZANA ALA BOROBILA

5.1. Jaialdien leloak, liburuen izenburuak eta hitz arrunten konnotaziozko adierak letra etzanez eta jatorrizko grafian idatziko dira. adibidez:

Bai Euskarari aldarripean
elkartu gara gaur hemen
(...)

Obabakoak baino lehenago
idatzi zuen *Bi anai*.
(...)

Txokolatea, segapotoa, eta abar

5.2. Erdaraz eta estilo zuzenean egindako aipuak kakotx artean eta letra etzanez idatziko dira.

¹ Hirugarren puntua errepikatu zuen kantuan.

5.3. Ekimenen izenak letra etzanez idatziko dira: *Bertso Eguna, Bertso Udalekuak, Bertsoaroa Ezta kasualitatea, Kopla barik, ...* Aldiz, Bertsolari Txapelketa Nagusia idatziko dugu, borobilez.

6. MAILEGU ETA MAILEGUONDOAK

6.1. Ingelerazko eta latinezko hitzen kasuan, Euskaltzaindiak euskara baturako onartu dituenak letra borobilez idatziko dira. Gainontzekoak letra etzanez eta jatorrizko grafian idatziko dira.

6.2. Frantsesezko eta gaztelaniazko hitzen kasuan, **ahalik eta gutxien idatziko dira letra etzanez**. Hitzunentzat ohikoak diren frantsesezko eta gaztelaniazko eleak letra borobilez idatziko dira, eta beti ere **euskal grafiaz idatziko dira**. Esaterako: truz (trousse), tenisak (tennis), ronpuena (rond-point), kotxea (coche), abioia (avión),...

Hainbat kasu:

- “Laik” esan badu bertsolariak:
 - Euskaltzaindiak baturako “Like” onartua balu, “Like” (borobilez) idatziko genuke. Eta oin-oharrean: “Bertsolariak “Laik” ahoskatu du” idatziko genuke.
 - Euskaltzaindiak “Like” baturatu ez balu onartuta, “Like” (etzanez) idatziko genuke. Eta oin-oharrean: “Bertsolariak “Laik” ahoskatu du” idatziko genuke.
- “Montecristua”: euskarak bereganatua duen arren, marka denez, c-rekin idatziko dugu (marka ez balitz k-rekin transkribatuko genukeen)

7. BERTSO LERROAK BANATZEKO BI TRADIZIO

Bertsoa lerrotan banatzeko bi usadio ditugu bizi-bizirik: Ipar Euskal Herrikoa (puntu osoa lerro bakarrean) eta Hego Euskal Herrikoa (hemistikioak lerro bakarrean). Biak dira egokiak, baina bi irizpideetan bigarrena baliatu ohi dugu eta ez dago zertan. Bi tradizioak dira bizirik, eta hala segi dezaten bertso lerroak idazterakoan modu hauek hobetsi ditugu:

7.1. Lapurdin, Baxenabarren edo Zuberoan sortutako bertsoen puntuak lerro bakarrean ematea, Bapatean, Xilaba, Elkarteko komunikazio euskarrietan eta abar. **Bada, ordea, salbuespen bat: BTNko liburuako bertsoaldiak.**

Bertsolari Txapelketa Nagusiko (BTN) liburuak doinu berrien transkripzioak dakartza; eta doinu berrien transkripzioa (pentagrama...) testuaren transkripzioaren arabera da. Hots, testuaren transkripzioak baldintzatzen du doinuarena. Errima arteko doinua lerro bakarrean transkribatuz gero, maketazioa konplikatuko luke. Gerta liteke, gainera, mugako alde bateko

sortzaileak beste aldeko herrian plazaratzea doinu berria, eta, kasu horretan, kantatzen den lekua bainoago doinuaren sortzailearen jatorria ez ote genukeen hobetsi behar ez dugu argi. Hala eginez gero, handiagoa litzateke anabasa. Beraz, sortzaileari zor zaion begirunearengatik eta doinuen maketazioko arrazoiengatik, BTNko bertsoaldiak Hego Euskal Herriko tradizioaren arabera idatziko dira, aterabide hoberik atzeman artean.

7.2. Aurreko puntuan esaten dena, bertsolaritzari buruzko hezkuntzako materialean aplikatzea, eta puntu osoa lerro bakarrean ematearen tradizioari buruzko berariazko aipamena egitea egokia jotzen delarik.

7.3. Horren araberrako neurrien izendapena baliatzea (zortziko txikia beharrean, lau puntuko txikia).

8. PUNTUA EMANDAKO ARIKETA

Puntua emandako ariketa dela adieraziko dugu “Lehen puntua emanda” idatzita.

Puntua emandako ariketan gai-emaileak eta bertsolari batek parte hartzen dute. Edo bi bertsolarik; batek ematen du puntua eta besteak erantzun osoa. Puntua gai-emaileak ematen duelarik, ez da haren izenik idatziko, ezta bertsolariarena ere erantzuna aitzin. Gai-emailearen izena aipatua izango da saioaren aurkezpenean, eta bertsolariarena bertsoaldiaren aurkezpenean.

Horrelakoetan puntuaren eta erantzunaren artean tarte utziko da, eta puntua letra lodiz idatziko da. Bertsolariaren erantzuna emandako lehen puntuaren segida balitz (esaldi bera) letra txikiz hasiko dugu idazten; beste esaldi bat balitz, letra larriz.

Bestalde, lehen puntua dagokion puntuazio markarekin idatziko da (puntua, harridura, galdera ikurra...).

N. Elustondo

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orain hasi bihagu*

Turistaz betetzen da udan kostaldea

ta esan dizut biktima
bat dela Nerea!
Nahiz ta gustoko ez izan
datorren jendea
ní're turista izan
naiteke ordea.

Aldiz, beste bertsolari bat (edo batzuk) delarik puntua ematen duena, bere izena idatziko dugu puntuaren aurretik. Eta erantzunaren aurretik erantzuten duen bertsolariren izena, ez dadin nahasmenik sor. Kasu horretan ez dugu lehen puntua letra beltzaranez nabarmenduko, ez baita behar.

A. Intxausti

Etxea ez da soilik
zerbait materiala.

S. Colina

Izan leike ondare
emozionala
horregatik ni noan
tokira noala
bertan sentitu nahi dut
etxean bezala.

9. AUTORETZA

Bertsozale Elkarteak jakinarazten du transkribatzen diren gai eta bertsoen testuek **autoreak** dituztela, eta saioek antolatzaileak. Edozein saio, bertsoaldi edo bertso publikatzerakoan beharrezkoa izango da bakoitzari dagokion aitortza egitea. Hedapen publikoari dagokionez, librea da informazio funtziotarako legeak ezarritako irizpideen baitan; gainerako funtziotarako bertsolarien baimena beharrezkoa izango da.

B. KOKAPEN IRIZPIDEAK

Bertsoaldia ze saioaren baitakoa den, noiz eta non izan den, parte hartzaileak zein izan diren nahiz bertso sortaren inguruko zenbait argibide emateko dira kokapen irizpideak. Transkribatutako bertsoak bere kontestuan ulertu ahal izateko gomendagarria da ondorengo informazioa ematea: lekua / data / gai-emailea (aurkezlea, gai-jartzailea) / gaia / neurria / doinua / bertsoak.

1. LEKUA

- 1.1. Herria**, Euskaltzaindiaren izendegi ofizialean onartutako moduan idatziko da. Adibidez: Oiartzun, Durango, Gasteiz, Lesaka, Markina-Xemein...
- 1.2. Auzoa** denean, herriaren izena lehenengo, eta jarraian, parentesi artean auzoa adieraziko da. Adibidez: Bilbo (Santutxu), Ataun (Aia), Mutiloa (Lierni), Azpeitia (Landeta)...
- 1.3. Lapurdi, Baxenabarre edo Nafarroa Beherea eta Zuberoa** dira Euskal Herriko herrialde; *Xilaba* ez da herrialde bat. Beraz, herrialde izenak baliatuko ditugu lekuari buruz ari garelarik, potreten oin-oharretan, bestek beste.

2. DATA

Eguna: uuuu-hh-ee. Adibidez: 2002-10-26

Grabazio zahar **batzuetan ez da erraza data zehazten**. Horrelakoetan ahalik eta gehien hurbiltzen saiatuko gara. Bertsoak entzuteak informazio asko ematen du: San Juan jaiak direla, halako langileak greban daudela, urte sasoia...

Adibidez: 1966ko San Pedro jaiak, 1977ko udaberria...

3. BERTSOLARIEN IZEN-DEITURAK

3.1. Bertsolaria **lehenengo deitura eta izenaren lehen hizkiarekin** izendatuko da. Adibidez: A.M. Peñagarikano, S. Colina, J. Maia, J.M. Irazu, U. Iturriaga, A. Mendiluze, M. Mendizabal...

3.2. **Deitura eta izenean lehen hizki bera duten bertsolariak egonez gero**, izenaren inisialari bigarren hizkia gehituko zaio. Lehentasuna, lehendik plazan dagoenari emango zaio: bertsolari bat bestea baino askoz berriagoa bada, lehenengoaren izenari hizki bakarrarekin eutsiko zaio, eta bigarrena izango da bi hizki eramango dituen. Adibidez: J. Agirre (<Joxe Agirre), Jn. Agirre (<Jon Agirre), Js. Agirre (<Joseba Agirre). Garai beretsukoak badira bi bertsolariak, biei jarriko zaizkie lehen bi hizkiak. Adibidez: As. Otamendi, An. Otamendi.

3.3. **Bertso saioaren aurkezpenean** idatziko da bertsolariaren izen osoa eta segidan **goitizena letra etzanez**. Bertsoaldiko **bertsoetan goitizena** baliatuko da **letra borobilez**.

3.4. Dena den, gomendagarria da argitalpenaren amaieran aurkibide bat gehitzea. Aurkibide honek, ezizen eta inisialak bertsolari bakoitzaren izen deitura osoekin nahiz beharrezko irizten diren gainontzeko datuekin lotuko ditu.

4. AURKEZLEA, GAI-EMAILEA ETA GAI-JARTZAILEA

Aurkezlea, gai-emailea eta gai-jartzailea bereizi egingo dira.

Aurkezleak, bertso ekitaldi bat inguratzen duten xehetasunen berri ematen du; gai-emaileak, bertsolariei saioan gaiak ematen dizkie; eta gai-jartzaileak, saioaren aurretik gaiak jarri edo prestatzen ditu. Funtzio ezberdinak pertsona ezberdinek betetzen badituzte, hala adieraziko da. Bestela, lan denak pertsona berak egin dituela ulertuko da, hau da, gai-emaileak. Guztiak letra borobilez idatziko dira. Adibidez:

Aurkezlea: Mikel Taberna

Gai-jartzailea: Bertsozale Elkarteko gai-jartzaile taldea

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz

Gai-jartzailea: Motxian Bertso Eskola

Gai-emailea: Jon Zaldua

Gai-emailea: Laxaro Azkune

5. GAIA

Gaia letra borobilez idatziko da, eta testuari dagokion irizpideetan adierazi bezala (ikus *Testuari dagozkion irizpideak*-eko 1. atala). Adibidez:

Gaia: Espetxean jaio eta hazi den haurra dugu Jon. Murua haren ama. Mundua ulertzeko zailtasunak ditu semeak eta amari galdezka hasi zaio.

Gai librean ari direlarik “Gai librean” idatzita adieraziko dugu, puntutan edo bertso osotan ari izanik ere.

6. NEURRIA

Neurria letra borobilez idatziko da. *Testuari dagozkion irizpideak*-eko 7. atalean esan dugun gisan, bertsoa lerrotan banatzeko bi usadio ditugu bizi-bizirik: Ipar Euskal Herrikoa (puntu osoa lerro bakarrean) eta Hego Euskal Herrikoa (hemistikioak lerrotan banatuta). Ohitura bat ala bestea erabiltzen dugunaren baitan izendatuko dugu ahapaldia. Adibidez:

Maritxu nora zoaz I: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)

7. DOINUA

Doinua letra etzanez idatziko da eta *Bertso Doinutegian* izendatutako moduan. Doinua beste izen batekin ezagunagoa denean, lehena eta bigarrena jarriko dira. Adibidez: *Aranora joan ziran I / Sastarretik hasita.*

8. BERTSO ESKOLA LARRIZ ALA XEHEZ

Izen berezia delarik letra larriz idatziko da: Xenpelar Bertso Eskola. Orokorra edo arrunta delarik, bertso eskola: “Herriko bertso eskolak antolatu zuen”.

9. KOKAPEN IRIZPIDEAK APLIKATUTAKO ADIBIDEA

DONOSTIA 2001-12-16

Aurkezlea: Mikel Taberna

Gai-jartzailea: Bertsozale Elkarteko gai-jartzaile taldea

Gai-emailea: Saroi Jauregi

A. Mendiluze – M. Lujanbio

Gaia: Zuek nortasun agiri edo identifikazio kartak zarete. Aitor, ENA edo Euskal Nortasun Agiria zara, eta Maialen, Espainiako nortasun agiria. Biok zaudete pertsona beraren karteran. Hiruna bertso, zortziko handian, Aitor hasita.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz I*

A. Mendiluze

Gaur bi agirik topo egin degu
baina zer demontre da hau?
Bistakoa da: bere buruan
aurretik eginak dirau.
Nahi ez duela heldu zaizkio
hainbat lege hainbat arau.
Zu jarrarazi egin zaituzte
eta ni berak jarri nau.

M. Lujanbio

Baina bidea nik libre daukat
ta zuk bete-bete trabaz
ni gazteleraz inprimatua
eta zu berriz euskaraz...
Gure jabea beti dabil zu
beste baterako lagaz.
Argazkia ere munituta dezu
izango zuen dardaraz!

A. Mendiluze

Biak batera zeuzkan ordea
dardara eta zentzuna.
Ni egitea izan da beraz
zurekiko erantzuna.
Nik azaltzen det jabeak duen
berearen maitasuna
zuk bere izena azaltzen dezu
ta nik bere nortasuna.

M. Lujanbio

Biak patrika berean gaude
biak elkarren hurrean.
Ni zurekin ez baina zu zaude
nerekiko haserrean.
Zu nortasuna omen zerala
diozu modu errean.
Nortasuna ere galtzen du batek
goardia zibilen aurrean!

A. Mendiluze

Goardia zibilen aurrean nahiz ta
susto bat duen hartua
ni atera nau nahiz eta izan
zuregatik galdetua.
Jarrera horrek ni indartzen nau
ta zeu zera kaltetua.
Indarra dezu baina horrela
kenduko dizut lekua.

M. Lujanbio

Neri lekua kendu nahiean
al da zure jo ta kea?
Oraindik indar haundia daukat
beharko dezu tartea.
Nere aurpegiak sortarazten du
patxara eta pakea
zure aurpegiak irekitzen du
kalabozoko atea.

C. BERTSOGINTZAKO ARIKETA IZENAK

Bertso-lanak honela izendatuko dira:

Hasierako agurra

Bukaerako agurra

Agur berezia. Sail honetan sartzen dira bertso bidez egiten diren: sari hartzeak, sari emateak, hileta agurrak, eskaintzak, omentzeak, eskertzeak eta aurkezpenak.

Bakarka, azken-aurreko puntua emanda

Bakarka, azken puntua emanda

Bakarka², gaia emanda

Bakarka³, gauza gaitzat emanda

Bakarka⁴, hitza gaitzat emanda

Bakarka, lau⁵ oinak emanda

Bakarka, lehen puntua emanda

Bakarka, oina emanda. Bertsolariari bertsoan erabili beharreko oin bat ematen zaionean.

Binaka⁶, gai librean

² Bakarka / Binaka / Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.

³ Bakarka / Binaka / Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.

⁴ Bakarka / Binaka / Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.

⁵ Lau / bost / sei / zazpi / zortzi / bederatzi / ... izan daiteke.

⁶ Binaka / Hirunaka / Launaka / ... izan daiteke.

Binaka⁷, puntutan gai librean

Binaka⁸, puntutan gaia emanda

Seinaka⁹, gaia emanda batek besteei. Bertsolari batek banan-banan beste bertsolari guztiei kantatzen dienean. Bertsokideen erantzunak jasoko balitu, horiek ere bertsoaldi berean sartuko lirateke.

Seinaka¹⁰, gaia emanda besteek bati. Bertsolari guztiek banan-banan bertsolari bakarrari kantatzen diotenean. Bertsolari honen erantzun-bertsoak ere bertsoaldi berean sartuko dira.

Ganbarako lana. Edozein delarik ere ariketa, adierazi egingo da kartzelako lana bada. Adibidez:

- Ganbarako lana: bakarka, gaia emanda
- Ganbarako lana: binaka, puntutan gaia emanda

⁷ Binaka / Hirunaka / Launaka / ... izan daiteke.

⁸ Binaka / Hirunaka / Launaka / ... izan daiteke.

⁹ Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.

¹⁰ Hirunaka / Launaka / Bosnaka / Seinaka / ... izan daiteke.